



## ESTATUTUEN GARAPENA. GEHITUREN BARNE-FUNTZIONAMENDUKO ERREGELAMENDUA – 2019ko MARTXOA

Gehituren indarreko estatutueta lehenengo xedapen gehigarriaren arabera, zeinean honako hau esaten den hitzez hitz:

**- Estatutu hauetako xedapenak araudiaren bitartez gara daitezke; arau hauek Batzorde Eragile eta Koordinatzaileak prestatu eta Batzar Nagusiak onartu behar ditu.**

Honako arauzko eduki hauek proposatzen eta onartzen dira:

### **1- Bateriaezintasunak**

1.1- Indarreko Estatutuen 7. artikuluan xedatutakoa interpretatu beharko da, zeinean “Elkartea Gobernu Kanpoko Erakundea da, politikoki zehaztu gabea eta halatan ez da erakunde politikoekin organikoki edota finko lotuko” ezartzen den, pertsona fisiko, bazkide edo laguntzaile ororentzako bateriaezintasunen klausula sortzaile gisa, Batzorde Eragilearen edozein karguren jabe izateko; ordaindutako postu bat elkartean, edo garatu eta proiektu publikoak izan dezakeen batzorde edo lan-arlo edo jardura baten ordezkari, artikulua horretan adierazitako zentzuan arlo politiko, sindikal edo instituzionalean nabarmendutako jardura bat aldi berean garatzen duenean edo egikarituko duenean. Adibidez, edozein mailatan (udalerria, probintzia, autonomia-erkidegoa, estatua eta Europa) hauteskunde-zerrendetan aurkeztuz gero edozein alderdi edo elkarte politikoren eskutik.

### **2- Batzorde Eragileari buruz**

2.1- Bokalia kopuru aldakor batek osatuko du Batzorde Eragilea, batzordea bera eratzen den unean operatibo dauden jardura, proiektu eta komisioen arabera.

2.1.b – Elkartearen enplegatu diren kideek bokal gisa soilik parte hartu ahalgo dute Batzorde Betearazlean. Organo horren osakeraren % 25a izango dira gehienez ere.

2.2.- Batzorde Eragilea osatzen duten pertsonen dimisioa ematen badute, edo kargua utzi, aukeratuak izan ziren agintaldia amaitu aurreko data batean, une horretan dauden batzorde eta lantaldeetako pertsona arduradunek Batzorde Gestore bat osatuko dute elkarrekin, solidarioki eta batera. Kargua uzten duen exekutiboaren funtzioak bere gain hartuko ditu Batzorde horrek, eta dagokion prozesua antolatzeke ardurak Ezohiko Batzorde Orokorren deialdia egiteko, zeinean Batzorde Betearazle berri bat izendatzeke ekingo zaion, estatutueta aurreikusitakoaren arabera, bi hilabeteko gehieneko epean.

Prozedura hori, beharrezkoa bada, gauzatzeko, hautatutako Batzorde Eragileak pertsona bat izendatu ahalgo du bere kideen artean egungo batzorde edo lan-arlo bakoitzean, arduradun gisa (Estatutuen 42. artikulua betez) eta pertsona horren ordezkari izango den beste bigarren pertsona bat ere izendatu ahalgo du.

2.3- Honela egingo dira Batzorde Eragilea Batzarrean hautatzeko bozketak:

- Hautagai-zerrenda bat baino gehiago badago, babesten duenaren izena boto-txartelean idatzi edo boto-txartel hori zuriz utzita, eta bere izena duen boto-txartel gehien dituen izango da hautatutako hautagai-zerrenda.
- Hautagai-zerrenda bakarra aurkeztuz gero, Batzarrera bertaratutako pertsonen gehiengo absolutua (erdia gehi bat) beharko du hautatua izateko.
- Ezein pertsona hautatzen ez bada, ekitaldian bertan *in situ* proposatu beharko da beste hautagai-zerrenda bat edo beste zenbait, eta hautagai-zerrenda horiek ere batzarrak onartu beharko ditu prozedura berei jarraikiz

- Batzorde Betearazle berria izendatzeko beharrezkoak diren botoak lortzea ezinezkoa bada, behin-behineko atxikiko litzateke gaur egun arte dagoena, estatutuen arabera aurreikusitako izapideak hasteko hiru hilabeteko gehieneko epean aurreikusitako izapideei hasiera emateko, hautagai-zerrendak aurkezteko aldi publiko bat irekiz, eta zerrendarik aurkezten ez bada, epe horretan deialdia egin beharreko Ezohiko Batzar Orokorreko gai-zerrenda puntu bakarrera murriztuko da: elkarteak desegitea.

### 3- Informazioa zabaltzeari eta jardueretan parte-hartzeari buruz

3.1- Gehitun eta Gehituk bultzatuta egiten diren jarduerak zabaltzeko premia eta jarduera horiek nork antolatzen dituen kontuan hartuta, batzorde, lantalde edo jarduera finko bakoitzak urtean egun bat finkatuko du (lehenengoz lehenengo hiruhilekoan) informazio-saio ireki bat eskaintzeko, lana, antolaketa-sistema eta egin beharreko jardueren programa ezagutzeko interesa duten kide edo laguntzaile guztiei, eta hori horrela, boluntarioak erakartzeko formula gisa baliatzeaz gain proiektu eta jardunetan inplikatzeko, ezagutzeko interesa duen edozein pertsonak –dela kidea, dela laguntzailea– aukera hori izan dezan.

3.2-Urtarrilaren batean buzoi birtual bat irekiko da urteroko Zilarrezko Gehitu eta Latorrizko Gehitu sariak aukeratzeari begira proposamenak igorri ahal izateko. Behar bezala arrazoitutako proposamenak [ejecutiva@gehitu.org](mailto:ejecutiva@gehitu.org) helbidera bidali behar dira emailaz

- Latorrizko Gehitu sarietarako proposamenak aurkezteko epea apirilaren 30ean amaituko da, haien artean egokientzat jotzen dena hautatu eta hura zabaltzeko, *maiatzaren 17an ospatzen den Homofobiaren eta Transfobiaren aurkako Nazioarteko egunarekin (International Day Against Homophobia and Transphobia, IDAHOT)* kointzidituz.
- Zilarrezko Gehitu sarietarako proposamenak aurkezteko epea maiatzaren 31n amaituko da, haien artean egokientzat jotzen dena hautatu eta hura zabaltzeko, saria E28aren ospakizuna dela-eta garatuko diren jarduerekin kointzidituz emanez.

Aurkezten diren proposamenak arrazoituz egin beharko dira, eta proposamen horiek planteatzen dituen/dituzten pertsona/k identifikatu egin beharko da/dira, eta kontsulta egin ahalko zaie horren inguruan informazio osagarria edo planteak daitekeen edozein zalantza argitzeko.

3,3.- Webgunea eguneratzea. Batzorde, lantalde edo jarduera-arlo bakoitzak bere jardunekin lotutako informazioa gutxienez hilabetean behin igortzeko ardura izango du edo, halakorik ezean, prestakuntzarekin edo informazioarekin lotutako albiste edo eduki esanguratsu bat, elkartearen webgunea eta sare sozialak behar bezala eguneratuta edukitzeko, euskaraz eta gaztelaniaz.

### 4.- Kuota sozialari buruz

Estatutuetan ezartzen denez, batzorde eragilearen ahalmena da bazkideek ordaindu beharreko kuota soziala ezartzea, eta, hori horrela, honako hau ezartzen da:

4.1- Langabezian dauden pertsonen beren lan-egoera egiaztatuz beharko dute gutxienez urtean behin, eta horretarako bulego teknikoak haren egoeraren frogagiri ofiziala eskatuko du urteko lehenengo kuota ordaintzeko aurreikusitako data baino lehen. Frogagiri hori aurkezten ez bada, kuota orokorra aplikatuko zaio automatikoki.



4.2.- 21 urtetik beherako bazkideentzako estatutuetan ezarritako kuota gazteari dagokionez, batzorde eragileak uste du, egun dagoen egoera ekonomiko desberdina dela-eta, kuota gaztea 30 urtetik beherako bazkideei aplikatuko zaiela.

Pertsona onuradunen adinaren berrikuspen bat egingo da urte-hasieran, bulego teknikitik dagokion kudeaketa egin eta eraginpeko pertsonari komunikatuz.

4.3.- Batzorde eragileak kuota aldakorrak ezarri ahalko ditu bazkideak hori eskatzearen arabera, pertsona horrek elkartearekin duen konpromisoa eta haren lan-egoera kontuan izanda.

5.- Beste mugimendu sozial batzuen ekimenak babesteko eskariei buruz.

Mugimendu sozialen ekimenei dagokienez elkartean jasotzen diren babes-eskaeren kopurua dela-eta, honako hau ondorioztatzen da:

5.1.- Munduko edozein tokitan LGTBI kolektiboaren egoeraren hobekuntzarekin zuzeneko harremana duten ekimenak babestea balioetsiko da.

5.2.- Era berean, Batzorde Eragileak kolektibo horrekin zuzenean lotuta ez dauden ekimenak ere babestea balioetsiko da, betiere hitzartutako elkarteen edo harreman ohikoa eta lankidetzan oinarritutakoa dugun erakundeen bidez aurkezten bazaizkigu.